

UNAMUNOREN IKONOGRAFIA

M. de Unamuno Euskal Pintatzaileen Adiskidea

Euskal kulturatzaz kezkatzen diran danak dauke M. de Unamunoren fitxea eta irudia. Bein baiño gehiagotan, Unamuno berak euskerari eta euskalherriari buruz egindako autorpenak, bere euskal nortasuna ta identitatea agirian jartzen dabe.

Idazlantxo honen helburua ez da autorpen horreek kritikatzeta, samurtuz erlatibizatzea, edo gogortuz absolutibizatzea. Ez gara horrelako hauzian sartuko.

Baiña, Buenos Airesko «La Nación» egunkarian, 1912.eko abustuan, «De arte pictórica» tituloaz argitaratu eban artikuloan, aipamen miresgarriak aurkitzen doguz, bere euskal izateari buruz. Berezko indarra ez kentzearren, idatzitako moduan, gaztele-raz, emoten ditugu zita bi honeek, harrigarrienak iruditzen jakuzanak:

«Uno de los mayores encantos secundarios que tiene para mí la piadosa visita que todos los años hago a mi *tierra vasca* es el de ser hoy Bilbao uno de los principales centros de producción artística pictórica en España. Allí me encuentro rodeado de pintores».

Lehenengo tokian Manuel Losada eta Ramon Zubiaurre lekutatzen ditu, honeek Unamunori asko atsegin jakozan bere erretratu biren egille ziran. Honela jarraitzen dau:

«Los dos retratos son por dos pintores vascos, y de un escritor vasco, como yo soy, y no sé si sea fantasía mía suponer que al pintarme en ellos y yo posar para que me pintaran nos pusimos en *comunidad de casta*».

Azpimarrak neureak dira, nabariago aurkesteko Unamunoren asmoa. Lerro honeetan bere burua euskalduntzat ez eze euskal leiñukotzat jartzen daula ikusi daikegu.

Hemen ere, Unamuno anbiguo ta zalantzazkoagaz aurkitzen ete gara? 1912garrenko aipamenak dirala, gogoan izan daigun eta urte horren inguruko beste idazlaren zeaztasun batzuk kontutan hartu beharrezkoak izango dira Unamunoren euskaldun sentipenak eta joerak baloratzeko ta neurtzeko. Baiña, hemen idatzitakoa ukatu eziña dala esan behar.

Beste bitxi bat demoigun, hurrengo hau 1930 garrenkoa eta gauza bera adierazoten dauana. New York'o Museo Hispanikorako, Unamunoren erretratu bat Sorollari agindu eutson Mr. Huntington jaunak. Filosofoak, irudi hau zala eta, bere kezak eukazan eta honela asaskatzen da: «Espero y confío que saldré de sus habilísimos pinceles mucho mejor que mi pueblo, Bilbao, y *el de mi casta vasca*, de la pluma de su paisano, Blasco Ibáñez».

M. de Unamuno arte zalea

Unamunok asko maite ebazan arte plastikoak, batez ere pintorea oso gogoko jakon, naiz eta margokuntzarako trebeta-



José Gutiérrez Solana (1886-1945): Begikera urrun samarrean, uleak aidean nahaspillaturik dituan Unamuno, Solanarena.



Aurpegi ameslari ta zerbait enigmatikoa dauan Unamuno VICTORIO MACHO, irudigilearena.

sunik ez izan, baiña, halan ere, zerbait praktikatu ebala adierazten dau: «Umetatik dibujotik artean ari nintzan, diño, eta geroago margokuntzan; baiña, azkenengo hau laga badot, margorako habilla ez nintzalako izan da. Marrea ta argillunak bai, baiña margoa ez; hau zailla egiten jat».

Bilboko artisten adiskide agertzen da, batzutan pintatzaillen lantokiak bisitatuz, beste, batzutan honeek alkartzen ziran lekuetan agerraldiak eginiz, eta beti pintatzaileekaz hartu-emonak eta adiskidetasuna zainduz. Eta alderantziz, pintatzaileak

asko estimatzen eben Unamunoren adiskidetasuna.

Vázquez Díaz pintatzailearen «Memorias» liburuan, hurrengo aipamen interesgarriak aurkitzen doguz: «Hendayara Unamuno atzerriratua izan zanean, bera ikustera batzutan joaten nintzan (.....), eta han, pintatzeko eredutzat nebala, berak ere pintatzailea izatea nahi ebala, esan eustan, eta horretan ordu askotan saiatu zala gazte aroan. Salamankako Unibertsitateko erretore etxean gorderik, berak egindako, irudi eta dibujotxiki batzuk ditu, urte batzuk geroago neuk ikusitakoak».

Pintatzaile euskaldunak Unamunoren eritxian

Benetan aipagarriak Unamunoren eritxiak euskal pintatzaileei buruz. Jakiña danez, heurotatik batzuk ez dira euskaldunak jaioterriz, ez eta arte hezikuntza aldetik, baiña euskalerriko paisajeagaz, inguruagaz, gizarteagaz pintura eskoleagaz loturak izan



Daniel Vázquez Díaz, (1882-1969): Bilboko Museoak zuhurtasun haundiz jokatu eban erretratu hau bereganatzean, Unamunoren erretratu hobezina askoren ustez.

ebazalako, hemengotzat hartzen dira.

MANUEL LOSADAK egin eutson erretratuagaitik harro agertzen zan Unamuno: «Zenbat eta nire senidetartekoei gitxia-go atsegin izan, niri gehiago guztatzen jab», inoan.

JUAN ECHEVARRIAREN lana honela deskribatzen dau: «Artista bezela geldiro ta leiatsu moldatzen doa, azken formulak billatuz».

ANGEL LARROQUE goi maillako pintatzaille legez jarten dau: «Behar bada trebeena, museo koadroak pintatzen dituana, egin eta hurrengo eguncan, gizaldiak dabezela dirudien mar-



Juan de Echevarria, (1875-1931): Unamuno barrukoia ta biguna, pintatzaile honek agerterazten dauana.

go oihalak dira Larroque-nak».

AURELIO ARTETA, 1912garrenean, oraindiño gaztea zan (1879-1940), 33 urte besterik ez eukan, eta horregaitik harira datoz Unamunoren hitzak: «Gazte lotsatia, errazako kemenez beterik ageri jakuna».

DARIO DE REGOYOSI deskripzio ezin laburragoan «paisajista frantzizkotarra» kalifikapena damotso.

IGNACIO ZULOAGA nahiko entzute haundikoa Espaiña guztian, beraz «Euskal pintatzaileen artean ezagunena» deituraz bereiztea ez da harritzekoa.

Arrue anaiak, Zubiaurre anaiak, Aranoa, Barrueta eta abar, ezagunak zituan, baiña heuron aipamen berezirik ez

da ageri Unamunoren idazlan honetan.


Unamuno artisten irudietan

Unamuno filosofua, idazlea, irakaslea, Salamankako Unibertsitateko erretorea eta artisten adiskidea, arlo ta bereiztasun guztietan ospetsua, eta erretratuak, irudiak, eskulturak izateko motiborik asko.

Hemen, hidazlantxo honen mugagatik, Unamunoren hiru eskulturen eta lau pinturen barri emongo dogu:

VICTORIO MACHO: Salamankako Unibertsitateko mailladi nagusiaren ondoan dago irudigille honen eskultura. Soin-gain itzela eta gizartsua, izaera tinkoa ta sendoa, aurpegia ameslari ta zerbait enigmatikoa dauala, misterio trajikoen mozorro klasikoa bezela.

PABLO SERRANO: Zizelkari honek, Salamankako uriaren aginduz, brontzean moldatu eban Unamunoren irudia, kale erdian, lur gainean, pertsona ibiltari arrunt baten itxura dauala. Hemen, Unamuno ikugarri, gizatiar bategaz aurkitzen gara; taillu abstratuetan eta zerbait barrokoetan gorputza apaindurik, burua tente, bere begiradak, urruna ikusmiratzen dauala, «betierekotasuna» bereganatuz eta auskultatuz bezela aurkesten jaku.



Brontzean moldatutako irudia, taillu abstratuetan eta barrokoetan apainduriko Unamuno, aurkesten dan PABLO SERRANO'k eskultura honetan.

MOISES DE HUERTA: Bilboko Museoan dago zizelkari honen Unamunoren burua. Unamuno berberaren erretratu bakarra. Irudi eratsu eta neurtu bategaz topo egiten dogu, itxurea pizka bat klasikoa ta helenikoa dauala. Beste alde, eskultura honetan, Unamuno bere gogoeta sakonetan murgilduta bezela,



Joaquín Sorolla, (1863-1923): Bilboko Museoan dagoan, amaitu gabeko Unamunoren erretratuak urritasuna kolorean, ta pintura pastea gitxi hedatuta erakusten deusku

ikuslearengandik urrun samar agerterazten da.

JUAN DE ECHEVARRIA: Unamuno atzerriratuta egoala, Hendayan, 1930ean, Echevarriak kuadro bi egin eutsazan. Erretratu bi honeetatik bat, Bilboko Museoan aurkitzen da. Pintatzaille honen heldutasuneko lanak ditugu, eta hain zuzen ere goi-maillakoak. Samurkiro ta aurrez-aurre aurkesten deusku Unamuno, horri batzuk eskuartean noiz irakurriko gertu, seguru asko, «Velazquezen Kristorenak», mahi gaiñean aurkitzen bait da, liburuaren azalean Kristo hori.

Pintura barrukoia ta biguna Van Gohegaz antzik eta pare-

kotasunik ba dauana jakintsuen ustez.

JOSE GUTIERREZ SOLANA: 1936an hiru margo-ohialetan iruditu eban Solanak Unamunoren fisonomia. Mahia liburuz beterik, paperezko txoria faltatzen ez dala, Unamuno fraile aulki haundi baten jezarrita, aurkesten deusku, begikera urrun samarrean, uleak aidean nahaspillaturik dituala, barrenen-go planoetan Salamankako inguruaren diseiñuaz.



Bilboko Museoan dago, MOISES DE LA HUERTA, zizelkari honen irudia: Itxurea pizka bat klasikoa ta helenikoa dauan Unamuno.

DANIEL VAZQUEZ DIAZ: Artista honen erretratua 1925. urtean Bilboko Museoak, eskari publiko bat bide zala, bereganatu eban. Kritikarien ustez, erretratu hobezina benetan: Artzain protestantearen jantzia soñean, kapela haundi baten az-

pian aurpegi enigmatikoa, azterkorra agertzen dauala, belaunaldi guzti baten sinbolo bezela. Esanahi beteriko erretratu honen molde zehatz eta sendoen barru planoetan, orlegizko mendi maldatsuak agertzen dira, samurtzen eta poetizatzen dabelarik ingurua.

JOAQUIN SOROLLA: Valenciako artista entzutetsu honek Unamunori egindako erretratu bi nahiko ezagunak dira. Lehenengoa Mr. Hungton jaunak New York'o Museorako agindutakoa. Erretratu hau dala eta, Unamunoren zalantzak eta susmoak gorago jarri doguz. 1947an Bilboko Museoak eskuratu eban erretratua, amaitu gabekoa da. Buru-aurpegia nahiko ondo lortuak, baiña gainetako, diseinua besterik ez da. Urritasuna kolorean, pintura pastea gitxi hedatuta, argi-illun kontrakotasun nabarmenekaz, aurkesten ducusku filosofoa; buru-aurpegian bakarrik somatzen da Sorollaren artista esku bikaiña.

Jose Ramon Iturriaga